



LAUDIO
ikastola

sebaska gela

ONGI ETORRI
LAUDIO TXIKIRA





EGOKITZE ALDIA

Egokitze aldia haur bakoitzak etxeko girotik aldendu eta Ikastolan era positiboan integratzeko behar duen denbora da, toki berri honetan eskaintzen zaizkion aukera berriekin gozatzeko gai izango delarik.

Haurrak etxeko giroa aldi baterako (ordu batzuetan) uzten du eta Ikastolan emango ditu. Ikastolan etxean bezalaxe ziurtasuna aurkitu behar du. Ziurtasun hau beste haur eta pertsona heldu ezezagunekin eta espazio, material eta altzari ezezagunetan gurasoen bitartez aurkitu behar du. Horregatik eta horretarako egokitze prozesu txiki bat egingo da non gurasoek, hezitzaileek eta umeek parte hartuko duten.

EGOKITZE ALDIKO PAUSUAK

☑ *Irailaren 2an zuekin telefonoz kontaktuan jarriko gara hurrengo bi egunetan egingo dugun hitz ordua zehazteko. Elkarrizketa honen helburua haurraren zenbait ezaugarri eta ohitura ezagutzea da.*



☑ *Egokitzealdiak progresiboa izan behar du. Horrela, **lehenengo egunetan haurra denbora laburragoan edukiko dugu Ikastolan etxekoekin**; egunak aurrera doazen heinean,*

denbora hau luzatuz joango gara, haurra Ikastolan egun osoa egotera iritsi arte. Horrela hezitzaileak, gurasoak eta umea elkar ezagutuko dugu. Umea eta gurasoen arabera egokitze prozesua luzatu edo ordutegia aldatu daiteke.

☑ *Hauek irizpide orokorrak dira. Egokitze aldia umeen beharretara moldatuko da beti*

OSTEGUNA 5	OSTIRALA 6	ASTELEHENA 9	ASTEARTEA 10
10:00-10:45		09:30-11:00	09:30-12:00

IRAILEKO EGOKITZE ALDIRAKO EGUTEGIA

IRAILAREN 11tik aurrera bakoitzak erabaki duen ordutegia.

ORDUTEGIA

Ikastolak ordutegi zabala izango du, hau da, goizeko 7:30etatik arratsaldeko 18:30ak arte. Haur hauen elikadura eta atsedeen orduak bakoitzaren beharren arabera moldatuko da, hots, haur bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak errespetatuz.


NOLA ANTOLATU ORDUTEGIA:

Umeak zentroan 8 ordu baino gehiago egotea ez da komenigarria.

Iraila hasierako elkarrizketan erabiaraziko duzuen ordutegia galdetuko dizuegu.

Nahiz eta ordutegi malgua izan, hezitzaileok aldez aurretik jakin behar dugu zein ordutan sartu eta aterako den umea.

Egunero kuadernotxo bat etxera eramango dute haurren informazioarekin (nola jan duen, kaka, sukarra, ...)



OSASUNA

Adin hauetan hurrek gaixotzeko duten arriskua dela eta oso garrantzitsua da osasunerako arau batzuk izatea.

*Haurrak, gaixorik dagoenean, arreta eta baldintza bereziak eskatzen ditu; zentruak eskaintzen ez dituenak alegia. Horrela, **gaixoaldian eskolaratzeak, beste haurrak kutsatzeko arriskuaz gain, bakoitzaren sendatze prozesua atzeratuko luke.***

Arrazoi horiengatik, haurraren eta bere ingurukoengatik garrantzitsua da haurra Ikastolara ez joatea gaixorik badago.

Ezin du Laudio Txikira etorri honelakorik duen haurrak:

- *Sukarra (37^otik gora)*
- *Urtsu edo odoltsu duen beheranzkoa.*
- *Estomatitisa (ahoko zoldura, zauri edo narrioa).*
- *Azaleko erupzio edo aldaketak (salbu pediatrik luzatuta kutsagarri ez dela adierazten duen agiria aurkeztuz)*
- *Konjuntibitisa, begiak gorritu eta kostradun makar horiak sortzen dituen koadro bakteriano eta birikoa.*
- *Trataera gabeko heste txitxareak.*
- *Zorriak: zomorro edo bartz guztiak desagertu arte.*

Gurasoek botikak Laudio Txikiko ordutegitik kanpo ematen saiatu behar dute. Bertan eman behar izango balitz, ordutegia eta dosia zehazten dituen pediateraren txostena eta tutoreek emandako baimen berezi bat sinatu beharko dute.

Gaixo dagoelako haurra ez bada zentrura etortzen, Laudio Txikira deitzea gustatuko litzaiguke 7:30etatik 9:30etara, beranduago gerta daiteke telefonoa ezin hartzea.

TELEFONOA 94 672 78 95.

IKASTOLARA EKARRI BEHARREKOAK

- 1.- Jantziak zenbat eta erosoagoak hobe.
- 2.- Oihalezko poltsa bat, izena jarrita, urte osoan gelan izateko. Poltsa barruan sartuko duguna:

- Bi body izenarekin.
- Umearen arropa edo pijama.
- Galtzerdiak.
- Haur-oihalak eta heze zapiak.
- Ipurdian emateko krema.
- Hiru babero.
- Lehorkin txiki bat ipurtzapien aldaketarako
- Txupetea kate eta kutxarekin, erabiltzen badu.
- Biberoi bat.



- 3.- Berokietan ere izena eta zinta luzea jarri.
- 4.- Agiri (karne) tamainako argazki bi.

Adin honetan umeak etxetik elikatzeko behar duen guztia ekarri beharko du (esnea, zerealak, pureak,)

Gauza guztiak izenaz markaturik ekartzea ezinbestekoa da.